

B

BARREN

TOKIKOM

Gerrako arrastoak, argitara



NEREA ARANBURU ARRATE

Alaia
Apala
Artista
Adiskidea
“Nerea”
Koadrilakoak



ESKERTZA

MANUEL ARAMBARRI ELDUAYEN



2013ko urriaren 22an hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

ELENA AIZPURUA ASTIGARRAGA



2013ko urriaren 21ean hil zen, 81 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

JAVIER GALDOS ASTIAZARAN



2012ko urriaren 25ean hil zen, 78 urte zituela.
“Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu bihotzean”



I. URTEURRENA

JOSE IGNACIO ATORRASAGASTI GOISERU



2012ko urriaren 24an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALAK


elgoibar
biZa biZka!



MENDAKOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Libre

Pasa den astean bi epaiketa hasi ziren Madrilen, bata 40 gazteren aurkakoa eta bestea herriko tabernen haritik 36 lagun eta 100dik gora elkarte eta taberna biltzen dituen. Biek zio politiko garbia dute atzean, eta ez da kasualitatea orain hastea, ETAK jardun armatua uzteko erabakia publiko egin zuenetik bi urte bete direnean. Espainiako Gobernuak Euskal Herriak bizi duen eta bizi nahi duen garai berriaren aurrean atzera egin nahi luke, eta jokatu ere, hala jokatzeko du.

Herrira-ren aurkako sarekadak ez dauka ez hanka ez buru, ez bada asteon jakinarazi den Parot doktrinaren inguruko erabakiaren aurrean mendekua eta posizio-hartzea. Elkarbizitza eta normalizazioa sarri darabilzkigu azkenaldian, eta horiek helburu, denok daukagu oraindik bidea egiteko, baina helburuak lortzeko determinazioa behar da lehenik, eta gaur egun penaz ikusten dugu estatuak zein eragile batzuek guztiz bestelako jarrerak edo helburuak dituztela.

Datorren astean Elgoibarko gazte bat ere epaituko dute Donostian, A8an egindako ekintza baketsu batengatik. Horrelakoengatik kartzela zigorra eskatzea ezin da inondik inora ulertu, ez bada disidentzia politikoa deuseztatzeko helburua dagoelako atzean. Bidea egiten jarraitu behar dugu, eta horretarako, bi gonbidapen baino ez: larunbata 26an Bilbon egingo den manifestazioa batetik, eta urriaren 30ean herrian egingo dugun ekitaldia bestetik.

Libre. Epaiketa politikorik ez!

Iñaki Bengoetxea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

OHARRA

Azaroaren 1a jai dela eta, datorren asteko alea eguenean argitaratuko dugu. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero, **martitzen eguerdirako** ekarri edo bidali beharko duzue **BARRE**nera.

barren@elgoibarkoizarra.com

Karmelo Urdangarin ekonomilariak jaso du ekintzailetasunaren Gure Balioak saria

Urdangarinen lankidetzarako gaitasuna nabarmendu dute sari banaketa ekitaldian

Jesus Bilbao iazko saridunaren eskutik jaso zuen atzo Gure Balioak saria Karmelo Urdangarin Altuna (Deba, 1932) ekonomilariak. Urdangarin Deban jaio zen, eta gazetatiak izan zuen Debabarreneko kulturarekin eta gizarte mugimenduarekin harreman estua. Peritu eta merkataritza-irakasletza ikasketak egin zituen, eta Orbea enpresan hasi zen lanean, kronometradore. 1971n, enpresa desagertzeaz zela, itxiera saihesteko egin zuen lan, eta berak egindakoa “erabakigarria” izan zen, gero Orbea Kooperatiba izatera pasatzeko. Enpresa estrategia diseinatu zuen, eta gaur Orbea denaren oinarriak ezarri zituen. Orbeako zuzendari izendatu zuten gero, eta Caja Laboral Popularreko enpresa atalera pasatu zen arte eutsi zion kargu horri.

1962an Acme-Deva enpresa eratu zuen beste hainbatekin batera eta kooperatiba ereduari eutsi zion. 1969an, Danobat, Eguzki eta Acme-Deba fusionatu ziren, Danobat Coop. eratu zuen. Urdangarin enpresa horretako Batzar Nagusiko kide izan zen, eta han egin zuen lan 1977an erretiroa hartu zuen arte. Erretiroa hartu zuen, baina aktibo, oso aktibo, jarraitzen du Urdangarinek. Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako hainbat graduondoko ikastarotan parte hartu du, bereziki nazioarteko kudeaketari buruzko ikastaroetan. Komunikabideetan



ere sarri parte hartzen du, eta kolaborazio asko idatzi izan ditu hango eta hemengo aldizkarietan. Enpresa munduan egindakoaz gain, aipatzekoa da Urdangarinek kultur arloan egindako ekarpena ere. Deban, Ostolaza fondoko kide izan da, eta Gipuzkoako eskolak euskalduntzeko lan egin zuen. Era berean, Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Eusko Ikaskuntzako kide ere bada.

Unceta eta Mitutuyo enpresen 50. urteurreneko ospakizun ekitaldia



Joan zen eguaztenean hasi zituzten Unceta eta Mitutuyon euren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Etxe barruko ekitaldia izan zen eguaztenekoa. Mitutoyotik, Harumi Aoki presidenteak, Akito Iwakiri Exportazio zuzendariak, eta Norbert Keil Komertzial Saileko zuzendariak parte hartu zuten ekitaldian, eta Uncetatik, akzionista guztiek eta Rikardo Garate presidenteak. Ekitaldian izan ziren, era berean, Leire Madariaga Jaurilaritzako kanpo harremanetarako zuzendaria, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea, Pello Gibelalde Adegiko presidentea eta Jozean Egaña IMHko zuzendaria. Bi erakunde korporatiboen arteko harremanaren erreposoa egin zuten, eta etorkizuneko estrategiak aurkeztu zituzten. Eguenean eta barixakuan atea irekitzeko egunak egin zituzten.

Jardunaldiak **Turismo jardunaldiak Elgoibarren**

Turismo jardunaldiak antolatu dituzte Debegesa Debababarrenako Garapen Ekonomikorako Elkartek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak urriaren 30erako. Goizean goiz hasita kanpotik gure eskualdea zelan ikusten duten aztertuko dute Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolan batuko direnek. *Nola ikusten gaituzte?. Entzun dezagun merkatu turistikoak zer dioen gutaz* izenburupean egingo dira jardunaldiok. Turismoaren alorrean zeresan handia duen jendea batuko da hitzaldira, antolatzaileek aurreratu dutenez.

9:30ean hasiko dira jardunaldiak, eta 17:30 bitartean, lau hitzaldi eta mahai-inguru bat izango dira. Hizlarien artean Ignacio Rodriguez del Bosque Kantabriako Unibertsitateko Merkaturatze eta Merkatu-ikerketan katedraduna, Andres Fernandez *El Pais* egunkariko *El Viajero* saileko arduraduna eta Juan Antonio Llantada Palmako Turismo Patronatuko arduradunak daude.

Tailerrak **Emakumeentzako Jabetze Eskola**

Azaroa eta abendurako bi ikastaro antolatu ditu Emakumeentzako Elgoibarko Jabetze Eskolak. Antropologia feministaren ingurukoa izango da bata. Urriaren 29an hasiko da, eta bost saio izango dira guztira (azaroaren 5,12,19 eta 26), denak ere martitzenean, 18:00etatik 20:00etara. Ixone Fernandez de Labastidak, Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia saileko EHUko irakasleak emango ditu eskolak, eta besteak beste, genero sistemak sorrarazi dituen desberdintasun egoeren gaineko hausnarketa egingo dute. Bigarren ikastaroa autodefentsa feministaren ingurukoa izango da. Maitena Monroyk emango du ikastaroa azaroaren 18,19 eta 21ean, 18:00etatik 21:00etara. Erasoei erantzuten ikasiko dute, autoestimurako eta autodefentsa fisiko eta psikologikorako tekniken bidez.

Asteko irudia **Bigarren eskuko bizikleta azoka**



Bigarren eskuko bizikleta azoka egin zen zapatuan Elgoibarren. Guztira, 27 artikulua egon ziren saltzeko edo trukerako, eta horietatik zortzi saldu ziren, tartean lau bizikleta. Bizikleten azokan bi bizikleta zozketatu zituzten, bata parte hartzaileen artean, eta bestea erosleen artean eta hauek izan ziren saridunak: Yosu Sanz eta Unai Neabe. Bestalde, Oin-Alairen irailako eta urriko zozketan bizikleta bana irabazi dutenen izenak ere jakinarazi ditu Elgoibarko Udalak: Ekain Bastida eta Eider Ribao.

Ainara Ladroni babesa adierazteko ekitaldi berezia egingo dute eguaztenean

Eguaztenean epaituko dute Ainara Ladron, Donostian, Segi "era-kunde terrorista" izendatzea salatzeko A-8 autobidean egindako protesta ekintza bategatik, eta hori salatzeko eta Ladroni elkartasuna adierazteko ekitaldi berezia antolatu dute Elgoibarren, urriaren 30erako. *Libre, elkartasunetik konpromisora* lelopean batuko dira Madalako parkean, 19:00etan.

Enpresen arteko harremanak sustatzeko 'networking'-a

Enpresen arteko harremanak lantzeko *networking*-a antolatu du Ekingune Debababarrenako ekintzaileen arteko lankidetzaz sustapenerako elkar-teak, azaroaren 6rako. Eskualdeko ekintzaileei, enpresariei eta profesionaleri zuzendutako saioa izango da berez, eta Eibarren egingo da, Erdibana kultur elkartearen lokalean, 19:00etatik 21:00etara (Urkizu pasealekua, 1-6 eskuina). Doakoa da saioa, baina asistentzia konfirmatzea komeni da: ekingune@ekingune.com / 943 208 420.

Gazteen aisialdi ohituen inguruko emaitzak emango dituzte

Euren adin bereko gazteek aisialdiaz nola gozaten duten aztertzen dihardute hogeitaz bat gaztek, Gaztemapping egitasmoan. Datuak batu dituzte, eta aztertu dute gazteek eurentzako diren baliabideak nola erabiltzen dituzten. Orain, mahai gainean jarriko dituzte datu guzti horiek urriaren 31rako eta azaroaren 6rako antolatu dituzten bi tailerretan (19:00-20:30). Datuen gainean gogoeta egin, eta abendurako, ikerketa horren gaineko ikuspegi orokor bat egiteko aukeran izango dira. Gazteen jokiera ereduaren gaineko emaitzak "Elgoibarko aisialdia hobetzeko" baliatu nahi ditu Udalak.

GERRAREN ARRASTOAN



Erreketen kantu honek ondo adierazten du 36ko Gerran Kalamua inguruan gertatu zena: *“En el monte Calamúa, hay una fuente que mana, sangre de los requetés, que murieron por España”*. Erreketeeña da kantua, baina hildakoak, jakina, bi bandoetan egon ziren. Edozelan ere, egia da gaur arte iritsi zaizkigun gerra kronika gehienak gerra irabazi zutenek idatzitakoak direla, atzera egin ahala, errepublika zaleek agiri guztiak erre zituztelako, etsaiari ezelako informaziorik ez lagatzeko. Erreketeen idatzi historiko horietan, eta gerra bizi izan zutenen –batekoen zein beste-koen– testigantzetan oinarrituta, 77 urte atzera eraman zituen Jon Etxezarraga Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak Morkaikok eta Elgoibarko Ondarea taldeak antolatutako mendi ibilaldira batu zirenak [45 bat lagun guztira]. Gaur gure begiz ikusi ezin dena ikusi zuten Arratetik Kalamuara gainez gain egin zuten sei orduko ibilaldian.

Ainara Argoitia

Gazte, oso gazte, hasi zen Jon Etxezarraga (Eibar, 1958) 36ko Gerrako aztarna bila. 7-8 urteko mutikoa zela, bala-zorroak batzera jolasten ziren Arraten, eta 14 bat urterekin, etxean hamaika bider entzundako kontakizunak jozten hasi zen. “Osaba bat falta genuen etxean. Gerra denboran galdu zen, eta bagenekien nonbaiten lurperatu zutela, baina gehiagorik ez”. Senide horren gaineko kontu lausoek piztu zitoten gerrarekiko interesa, eta orduan Aranzadikoekin hasitako harremanak eraman zuen gero gaian sakontzera. Bisitatu

zituen hango eta hemengo artxibategiak, metal-detekttagailu bat hartu eta alderik alde orraztu zuen Arratetik Kalamuara arteko saila, eta Intxorta 1937 kultur elkartean hasi zen lanean. Memoria historikoa egiteko ahalegin horretan, ukondora arteko ezker besoa ere galdu zuen duela bost urte Arraten, indargabetutako gerrako bonba bat museorako garbitzen ari zela. “Berez, indargabetutako lehergailu hark barruan zuen lehergaia ez zen arriskutsua, baina bazuen zerbait”, azaldu du. Gertaera hark ez zion jakinmina apaldu, hala ere. Kontrakoa. Orain, 36ko Gerrarekiko

jakinmin hori piztu nahi du gazteengan, gure “historiarik hurbilena” delako.

Aurrez ere ohartarazia zuen Etxezarragak ibilaldira batzen zirenek ez zutela trintxera handirik ikusiko Kalamuan, ez zutela gerrako eraikuntza handirik topatuko zutik. Esana zuen lurak estaliak zituela gehienak, baina saiatuko zela ibilaldira batzen zirenen gan interesa pizten. “Gaur gurdi-bidetzat ditugun asko gerrako trintxeren aztarnak dira, eta gaur karobitzat ditugun asko 36ko Gerran polborategiak edota babeslekuak izan ziren”, dio. Aizketako adibidea jarri du. “Aiz-

ketan badaude pare bat laugune gerran kanpamentuak jartzeko erabili zituztenak. Gaur, han zer egon zen galdetuz gero, batek baino gehiagok usteko du karobiak egon zirela han”, azaldu du.

Etkezarragaren arabera, gure inguruko mendietan gerra sasoiko eraikuntza eta material asko dago, lurrak eta sastrakak azpian hartuta. Arratetik bertan, Krabelinen, bere garaian aire erasoetatik babesteko gordeleku edota polborategia izan zenaren aztarnak topatu dituzte, erdi ustekabean. “Duela hiru urte luizi bat izan zen inguru hartan, eta hari esker azaleratu zen lurrak azpian hartutakoa. Sarrera bakarreko gordelekua da, gero barruan bi adarretan banatzen dena”, azaldu du. Handik gertu, errepublika zaleak hildako Serafin Atxotegi erreketearen omenez eraikitako hilarria ere badago.

“Nola liteke metro beteko sakonera zuten trintxerak gaur ikusezin izatea?”, galdeztzen dute askok, sinistu ezinda”. Bi arrazoi nagusi aipatu ditu segidan. Batetik, denbora, eta bestetik, gerra amaitu bezain laster Francok langileen bataloiak sortu zituela eta frontean babeslekuetat erabili zituzten bunkerrak eta beste desegiteko agindu ziela lanera behartutako gerrako presoei, han zegoen burdina eta material guztia berreskuratzeke. Trintxerak betetzeko agindua ere jaso zuten preso haiek. Gerrako aztarnak ikusteko, entrenatuta egon behar du begiak; jakin behar du non zer behatu, eta horixe azaldu zuen Etkezarragak.



Erreketete talde bat hamaiketako egiten Kalamuako posizio batean.

Horretarako Indalecio Ojanguren argazkilaria (Eibar, 1887-1972) egindako argazkiak baliatu zituen, besteak beste.


Testuinguru historikoa

Irailaren 21ean sartu ziren Francoren tropak Elgoibarren, Uparitzaga aldetik, eta bi egun beranduago hasi ziren lehenengo borroka Aiestia, Urkaregi eta Morkaiko inguruan. Morkaikon [erreketeteek mendi konikoa deitzen zioten], lubakietan babestu ziren Errepublikaren alde ari zirenak, eta Santa Klaratik, gaur moja klaratarren konbentua dagoen lekutik, kanoikadaz erasotzen zieten Francoren aldekoek, Erich Andres argazkilaria egindako [III. Reich-aren argazkilaria ofizialetako bat] argazkietan ikus daitekeen bezala. Erasoerako prestatuago zeuden matxinatuak. “Errepublikarrek ez zuten armamenturik. Loiolako koartelean egindako lapurretan ostutako mosketoi batzuk, artilleria pieza batzuk, azkeneko karlistaldiko fusilen bat, eskopeta batzuk, eta kalibre txikiko pistolak

besterik ez zituzten. Gorputzez gorputz borrokatzeko armak, azken batean”. Hala ere, estu hartu zuten aurkaria. “Uztailaren 18an izan zen militarren altxamendua, eta Elgoibarrera irailaren 21ean iritsi ziren Francoren tropak. Horrek erakusten du nahi baino gehiago kostatu zitzaizela bidean aurrera egitea. Kalamuatik Bilbora arte iristeko ere, lau hilabete behar izan zituzten gero.

Estrategian ez zuten asmatu, Etkezarragak dioenez. “Francok eta Mola jeneralak usate zuten Madril hartuta dena egingo zutela, Gobernu errepublikarra jausiko zela eta gerra bukatuko zela. Baina Madrilen estu hartu zituzten, eta hori oso ondo etorri zitzaion gure jendeari, tarte horretan arma gehiago eskuratzeko aukera izan zutelako”. Lezo de Urreiztieta marinel eta kontrabandista aberzaleak kontrabandoko armak ekarri zituen Herbehereetatik [fusil eta fusil metrailadore txekiarrek ziren oinarrian], eta Francoren tropen zati handi bat Madrildik itzuli zenerako armatuago zeuden hemen errepublikarrak. “Amuategi batailoikoei behin baino gehiagotan entzun diet ‘zeuen botikatik probatuko duzue orain’ esaten zutelako errepublikarrek matxinatuei, Akondiako kokalekuetan aurrez aurre zituztenean. Lezo de Urreiztietak ekarritako guzti haren ondotik iritsi zen beste arma kargamenturen bat ere, Greziatik eta Errusiatik, bereziki. Garbi esan behar da, baina, errepublikarrek zuten material gehiena I. Mundu Gerran atzera gelditutakoa zela”. Hala ere, 1937ko apirilera arte eutsi zuten, nola edo hala. Kosta ahala kosta, saiatu ziren frontea luzatzen, jakin bazekitelako III. Reicha II. Mundu Gerrarako prestatzen ari zela eta bazekitelako gerra lehertzen bazen alemaniarrek ezin izango ziotela ordura arte beste lagundu Francoren tropei, eta estrategia militarra goitik behera aldatuko zela.

Matxinatuen trintxerak Akondia gainean, Indalecio Ojangureneg egindako argazkian.



Frontearen egonkortzea


1936ko urria aldera, Kalamua inguruan egonkortu zen frontea, eta gerra egiteko modu berri bat ere hasi zuten matxinatuek, atzeguardia ahultze aldera: zibilen kontrako bonbardaketak. Giroa erabat gaiztotu zen gure mendietan ere. Kalamuako pozisioetan ehun metroko distantzia zegoen askotan batzuen eta besteen artean, eta odol berekoak ere parez parez izan ziren askotan. Zituzten armengatik, baina, errepublikarrak, esate baterako, behartuta zeuden gorputzez gorputz borrokatzera. “Batzuek besteengandik egon ziren distantzia labur hori oso deigarria egiten zaie orain askori, trintxeren trazatua azaltzen diezunean, baina 36ko gerran hori oso normala izan zen”. Maltzagako senide biren kasua ekarri du gogora Etxezarragak. “Anaia bat Artajonako erreketean bataloian zegoen sartuta eta Munetako haitzetan magalean zuten pozisionamenduan egotea egokitu zitzaion. Beste anaia, berriz, errepublikaren alde ari zen, Maltzagan bertan, Sagartegieta dorretxe ondoko postuan”.

Akondia gainean egon ziren borrokaldi gogorrenak. Horregatik, beharbada, inguru horixe da gerrako aztarnak topatu nahi dituenarentzako lekurik aproposena. Akondiako gainera iritsi aurreko lautadaxoan, esaterako, Francoren tropek Usartzako gaina kontrolatzeko baliatu zuten trintxera txiki baten aztarnak daude, eta gainetik gertu, Eibarko Aginaga auzora ematen duen mendi hegalean, errepublika zaleek aurkaria ezustean harrapatzeko eraiki asmo zuten lurrazpiko galeria baterako sarre-
ra topa genezake. “Errepublika zaleek kalkulatu zuten 70 bat metroko tunela eginda ustekabean eraso ahal izango zietela etsaiei, baina amaitu gabe laga behar izan zuten lana [30 bat metroko tunela zulatu zuten]. Gerra garaiko “leizea” da, “beharbada inguruko aztarnarik ikusgarriena askorentzat”. Etxezarragak dio inguru horretan batutako bala-zorroekin behin baino gehiagotan joan izan zaiela jendea, eta tartean ETAK erabilitako munizioa ere batu dutela. “Izan ere, inguru hori baliatu zuten sasoi batean ETAKo militanteek entrenamendurako”.

Akondian, metro gutxira jardun zuten borrokan batzuek eta besteek. Horren inguruko dozenaka testigantza batu dituzte



Tomas Meabe aterpetxea. 1934. urteko argazkia da, Ojangureneg egindakoa.



Tomas Meabe aterpetxearen hondarrak, 1937an, gerra amaitu berritan.



Tomas Meabe aterpetxea zena, gaur egun.

Intxorta37 taldekoek. "Herri bereko gazteak aurrez aurre egon ziren Akondian, denbora luzean. Euren gogoz batzuk eta behartuta beste asko. Eta jasota dago, barealdietan, hitzartu gabeko su-eten laburretan, egunkaria, ogia eta bestelako jatekoak ere trukatzeko zituztela. 'Nazkatuta gaude ogi beltza jaten' esaten zieten batzuek besteek, eta tabakoaren edo prentsaren truke ogi zuria ematen zieten". Gerran zeuden, baina biziraun nahia handiagoa zen. Bando batetik bestera pasatu zirenak ere egon ziren. Errekete bati gertatutakoren berri eman du, garai hartako prentsak publiko egin zuen kasu baten berri. "Arratera bidali zuten erreketek bat mezu batekin, baina bidea ezagutu ez eta galdu zen mendian. Noraezean, errepublika zaleak zeuden leku batean agertu zen, eta bizia salbatze aldera, bandoz aldatu zela esan zien. Errepublika zaleek jaten eman zioten eta Eibarrera jaitsi zuten. Prentsan ere argitaratu zuten berria: 'Errepublikak beste lagun bat irabazi du'. Handik lau egunera, Akondiarra bidali zuten gizon hori errefortzu gisa, eta gauez, aukera izan zuenean, bere lagunengana bueltatu zen". Halako kasuak dozenaka zenba daitezke talde batean zein bestean.

Akondia inguruan bezala Garagoitxi mendian ere begiz jo daitezke 36ko Gerran errepublika zaleek eraiki zituzten hainbat trintxeraren hondarrak, eta haiek atzera egin ahala, Francoren tropek bere egin zituztenak. Matxinatuak Garagoitxin zeudela,

errepublika zaleek San Roman-go posizioetatik erasotzen zieten mortero kanoikadekin eta Markinatik iristen zitzairen artilleria apurrarekin. Garagoitxitik San Pedrorra dagoen bide horretan badaude orduan galerian eraikitako hiru-lau babes-toki ere, baina sastrakek apenas lagatzen duten ikusten.

Kalamuako azpisektorean, lau gunek merezi dute ibiltariaren arreta, Etxezarragaren arabera, baina horietatik Tomas Meabe aterpetxea izandakoaren hondarrak dira, beharbada, agerikoenak. Tomas Meabe aterpetxea Eibarko sozialista gazteek eraiki zuten, Kalamuara egiten zituzten irteerarako, eta erreketek jasotakoaren arabera, eurek iritsi zirenean tente zegoen, baina handik alde egin zutenerako erabat hondatua zegoen. Bi bandoen arteko tiro eremuan zegoen Tomas Meabe aterpetxea, eta historialariek uste dute errepublika zaleek eraitsi zutela, Markinatik botatako kanoikadekin eta San Romandik botatako jaurtigiekin. "Erreketeen agiritan irakurri dugu egunez ez zegoela inguru hartan egoterik, erasoak etengabeak zirelako. Gauez, baina, erasoak eteten zirenean, hantxe hartzen zuten aterpe". Horrekin lotuta, 37ko gertakari baten berri eman du. Erreketeak meza



Jon Etxezarraga, Krabelinen, Serafin Atxutegi erreketearen hilarri ondoan.

ospatzen ari zirela errepublika zaleek botatako jaurtigai batek bete-betean jo zuen aterpetxea. Teilatua eta lehenengo pisuko sabaia zulatu eta meza ospatzen ari ziren lekuan jausi zen mortero-lehergai hura, baina itxuraz, ez zen lehertu eta susto hutsen gelditu zen dena.

Normalean, gaua errespetatzen zuten. Atsedenerako tartea izan ohi zen, eta izatekotan, errepublika zaleak ziren atsedean hori hausten zutenak. Hala ere, oso kontraeraso gutxi izaten ziren gauez, tropak oso nekatuta egoten zirelako eta materialez urri ibilita, baldintza onenetan borrokatu beharra zegoelako. "Tiroketa txikiak eta bai, baina "aintzat hartzeko moduko" sei edo zazpi eraso bakarrik izan ziren Akondian", dio Etxezarragak.

Kalamua tontorrera aurreko aldatza hasten den lekuan bertan zegoen Tomas Meabe aterpetxea, ezker hegalean, Oiz mendiarri bizkarra emanez. Handik, matxinatuek Kalamuako tontorraren bueltan eraiki zuten trintxerak ikus zitezkeen, eta ikus daitezke gaur ere hondarrak. Era berean, eta sasi eta adaska artean hankak urratzeko beldurrik izan ezean, 36an errepublika zaleek egindakoak ere igar ditzakete begia egina dutenek. Gerrako eraikuntza guzti haiek lekuan bertan irudikatuta, eta batetik bestera zegoen distantzia laburra ikusita, gerraren gordinaren ideia egin dezake bidaiariak, urrutira joan gabe.

Jon Etxezarraga, zapatuan, Akondian topatutako munizio aleak erakusten.



JOSE MARI ERAUSKIN

ABOKATUA

“Banketxeen
gehiegikeria guztiak
salatzen
jarraituko dugu”

Kaleratzeak Stop taldeak antolatuta, hitzaldia eskaini zuen joan zen astean Jose Mari Erauskin abokatuak, Eibarren. Beste hainbat gairen artean, HMEI (IRPH) indizeak etxebizitza maileguetan duen eraginaz jardun zuen. Europak orain dela bi urte eman zuen indize hori indargabetzeko agindua, baina bankuek prozesua atzeratu egin dute, eta datorren azaroaren 1era arte izango dute indarrean. Maileguak indize honen arabera dituzten herritarrek hilean 300 edo 400 euro gehiago ordaintzen dituzte, eta arazo hau lehenbailehen konpondu behar dela uste du Erauskin.

Zer da HMEI indizea?

Hipoteka-mailegu baten interesak kalkulatzeko erabiltzen den indizeetako bat da HMEI-Kutxa, eta iazko apirilaren 28ra arte erabil zitekeen. Euriborra beste indize bat da, baina hori Europak zehazten du, eta inork ezin du datu horren gainean eragin. Nolabait esateko, datu neutrala da. Gora egiten duenean, maileguak gehiago ordaintzen dira, eta jaisten denean, maileguak merkeagoak dira. HMEI-kutxa indizea. al-diz, Espainiako kutxek beraien bezeroei hi-

labete batean kobratutakoaren batez bestekoarekin kalkulatu da. Hortaz, hilabete batean Espainiako edozein kutzak interes tipoa altxatzen baditu, adibidez puntu erdi, igoera horrek handitu egiten du kutxek hilabete horretan kobratutakoaren batez bestekoa, eta ondorioz HMEI indizean oinarritutako mailegu guztiak garestitu egiten dira. Euriborra beherantz doa, baina HMEI indizea gero eta altuago dago. Abuztuaren 31n, HMEI indizea euriborra baino %720 altuago zegoen. Ikaragarria da.

HMEI indizea indargabetzeko eskatu zion Europak Espainiari 2011n. Zergatik jarraitzen du indarrean?

Europar ez dute baimentzen bi aldeetako batek manipula dezakeen indizerik, eta HMEI indizea banketxeek manipulatuta dezauketenez, bertan behera lagatzeko eskatu zion Espainiari 2011ko urriaren 28an. Sei hilabeteko epean indize berria jarri behar zuten indarrean, hau da, 2012ko apirilaren 28an, baina urtebeteko trantsizio epea baimendu zuen aginduak. Hortaz, beste urte-



Argazkia: Goiena.net

betez aplikatu ahal izan dute banketxeek indizea. Hori gutxi izan ez, eta beste sei hila-betez luzatu zuten trantsizioa, datorren azaroaren 1era arte, alegia. Luzatzea gehiegizkoa da, eta banketxeek gainera eskatu dute indize berria azaroaren 1ean aplikatu beharrean, maileguaren errebisioa tokatzen den arte itxarotea.

HMEI indizea indargabetzeak zein aldaketa ekarriko ditu?

Kutxabaneko bezeroen kasuan, maileguaren baldintzetan argi esaten da HMEI-kutxa indizea desagertuko balitz, euribor gehi bat aplikatuko luketela. Aldea sekulakoa da. HMEI-kutxa indizea 4an dago, eta euriborra gehi bat, aldiz, 1,5 izango litzateke. Hilean 300 edo 400 euro aurreztuko lituzke bezeroak. Ez da gauza bera hilean 500 euro ordaintzea, edo 800. Familia askok posible izango lukete euribor gehi bat formularekin mailegua ordaindu, eta etxe kaleratzea sahiestea. Aldaketa hori azaroaren 1ean bertan egin behar da. Nahikoa atzeratu da prozesua, banketxeen onerako eta bezeroen kalterako.

Zer egin daiteke egoera honen aurrean?

Kaleratzeak Stop taldearen izenean eskaera zehatza egin dugu Donostiako epaitegian. Batetik, Kutxabanki eskatu diegu azaroaren 1ean HMEI-kutxa indizea bertan behera lagatzeko eta euribor gehi bat aplikatzeko, bere klausuletan jasota daukana betez. Bestetik, Kutxabaneko Kontseiluan dauden alderdi politikoei eskatu diegu aldaketa hau egitera derrigortzeko Kutxabank. EAJK eta PSEK gehiengoa dute kontseiluan, eta nahi izanez gero, bi ordutan HMEI-kutxa indizea kendu dezakete. Era berean, koherentzia eskatzen diegu EAJ eta PSEri. Apirilean eta maiatzean zehar udaletxe gehienetan aurkeztu genituen mozioak, Udalek Kutxabanki eskatzeko Euribor gehi bat aplikatzea, baina Kutxabankek eskari horri entzungor egin dio. Parlamentuan ere onartu zuten mozio hori, baina Eusko Legebiltzarrari ere ez dio entzun nahi izan Kutxabankek. Ez da logikoa EAJK eta PSEK Udaletan eta Parlamentuan gauza bat bozkatzea eta Kutxabanken kontseiluan beste bat. Azkenik, herritarrei argi ibiltzeko eskatu nahi diegu, izan ere, Kutxabaneko sukurtsal batzuetatik bezeroei deika ari dira, HMEI-kutxa indizearen ordeaz, HMEI-erakunde indizea edo 3,90eko interes tipo finkoa eskaintzeko. Hori onartuz gero, egun batzuetan diru apur bat aurreztuko lukete, bai-

na azaroaren 1etik aurrera, diru pila bat galduko lukete. Iruzurra egiten ari dira. Ez dezala mesedez inork eskaintza hori onartu.

Zenbat jenderi eragiten dio egoera honek?

Kaltetu asko daude. Espainian jende askori eragiten dio HMEI-kutxa indizeak, eta Gipuzkoan ere milaka kasu daude. Gaur egun euriborra da maileguetarako gehien erabiltzen den indizea, baina 2008-2009 urteen bueltan mailegu asko sinatu ziren HMEI-kutxa indizearekin.

Azaroaren 1ean ez badute HMEI-kutxa indizea bertan behera uzten, zer egingo duzue?

Oso argi daukagu: udaletxe guztietara joango gara banan-banan, eta eskatuko diegu euren diru guztia Kutxabanketik ateratzeko. Kutxabankek entzungor egiten badie Udalen eta Parlamentuaren eskaerei, ez da bidezkoa herritarren dirua Kutxabanken egotea.

“Gizarte Mugimenduak ari dira konpontzen alderdi politikoen konpondu beharko lituzketen arazoak”

Etxea galtzar dagoen pertsona batek zer egin dezake bere etxetik kaleratu ez dezaten?

Etxe kaleratzea ezin da sahiestu kaleratzearen bezperan etxe azpian protesta eginez. Kaleratzeak sahiesteko modu bakarra maileguak ordaintzeko baldintza egokiak jartzea da, hau da, jendeak ordaindu ahal dituen baldintzetan eskaintzea kredituak. HMEI-kutxa bezalako indizea edota bestelako gehiegizko klausulak indarrean dauden bitartean, ezer gutxi egin daiteke. Bezeroei hipoteka ordaintzeko erraztasunak eman behar zaizkio. Kaleratze kasu batzuk aztertu ditugu, eta konturatu gara HMEI-kutxa indizeak eragiten duen gehiegikeriagatik izan ez balitz, hipotekaren ordainketa egunean izango luketela. Lotsagarria da. Kasu batzuetan kopurua bikoiztu egiten da.

Egoera honen aurrean, zein da banketxeen jarrera?

Banketxeak dira jolas honen gidariak, botere politikoa erakunde finantzarioek erabat bahituta dutelako. Europatik etorri zen agindu hau egunean bertan hasi zitekeen aplikatzen, baina luzapena eman zitzaizen banketxei, gero luzapenaren luzapena... Botere politikoa berak baimentzen du banketxeen gehiegikeria hau. Ez da bidezkoa. Gehiegikeria horren eraginagatik bezero askok ezin dute mailegua ordaindu eta etxea galtzen dute, eta gainera, horrekin ez dute zorra kitatzen. Botere politikoa baimentzen du hori guztia, banketxeekin zorrik handienak alderdi politikoen euren dituztelako. Beraien lokalak ez galtzeko, beste alde batera begiratzen dute.

Zein da zugana jotzen duen jendearen kezkarik handiena?

Kezka asko eta askotarikoak dituzte. Etxea galtzea gutxi ez balitz, seme-alabak galtzeko arriskua ere badago. Legearen arabera adin gabeak ezin dira kalean geratu, eta etxea galtzen den momentuan gurasoei umeen kustodia kendu ahal die. Drama egoera larriak bizi ditugu. Etxea galdu arren, diru asko dute oraindik zorretan, eta nomina bat izanez gero, hortik kentzen diete dirua. Beraz, kontraturik gabeko lanak onartzera derrigortuta daude asko eta asko. Eta gainera, udaletxe batzuk transmisio zerga kobratzen diete etxea galdu duten horiei. Ikaragarria!

Egoera honek badauka konponbiderik?

Kaleratzeak Stop bezalako plataformei esker lan handia egiten ari gara. Alderdi politikoen konpondu beharko lituzketen arazoak Gizarte Mugimenduak ari dira konpontzen. Une honetan planteatuko nuke nik alderdi politikoa benetan behar ditugun ala ez. Azken batean, kaltetuak eurak direlako egoera honi irtenbidea ematen dihardutenak. Ni botikaria naiz, baina zuzenbide ikasketak ere eginak ditut, eta Hondarribiko Kaleratzeak Stop taldean sartu nintzen, ahal nuen neurrian laguntzeko. Guk, banketxeen gehiegikeria hauek guztiak salatzen jarraituko dugu.

Aubixaren 40. urteurrena ospatu zuten zapatuan

Aubixa handi egiten lagundu zuten guztiei eskerrak eman zizkieten ekitaldian

Duela 40 urte, Juan Jose Araolazak, sasoi hartan Elgoibarko Izarrako presidente zenak, ekarri zuen Zarautzik Aubixa baserria aterpetxe moduan atontzeko ideia. Halaxe sortu zen Aubixa euskara sustatzeko aterpe bihurtzeko ideia. Zapatuan, 75 bat lagun inguru batu ziren Elgoibarko Izarrak eta Aubixa Kultur Erakundeak antolatu zuten eskertza ekitaldian. Maritxu Loiolak Aubixaren bueltan jardun duten lagun guztiei eman zizkien eskerrak. Alaia eta aldi berean hunkigarria izan zen 40. urteurreneko ospakizuna. Informazio eta argazki gehiago: www.elgoibarren.net atarian.



Euskararen Nazioarteko Eguna elkarlanean antolatzeko lanak bide onetik doaz

Azaroaren 6an egingo dute hurrengo bilera, 18:00etan, Kultur Etxeko sotoan

A benduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Eguna elkarlanean antolatzeko bigarren bilera egin zuten martitzenean euskalgintzako hainbat eragilek, eta bileran parte hartu zutenak oso pozik agertu dira herritarren inplikazioarekin. Guztira 22 eragilek hartu zuten parte bileran, besteak beste, Elgoibarko Izarra, Ongarri Zine Kluba, Haritz Euskal Dantzari Taldea, Sortu, EAJ, AEK, Kalamua Guraso Elkarte, Euskara Saila, Institutua, Herri Eskola, Eusko Alkartasuna, Udal Euskaltegia, Ikastola, Lagunak Pilota Taldea, Musika Eskola, Taupada Antzerki taldea eta Sanlo Eskubaloi Taldearen ordezkariak bildu ziren, norbanako moduan parte hartu zuten beste herritar batzuekin batera.

Euskararen Nazioarteko Eguna elkarlanean ospatzea helburu dute guztiek, eta horretarako, orain bi aste egingo dako lehenengo bileran erabakitakoak xehetzen jardun zuten martitzeneko bileran.



Komunikazio kanpaina eta aurrelana, Euskararen Eguneko ekimena bera edo eta plazaratu asmo duten manifestua izan zituzten hizpide Sotoan bildutako lagunek. Prestaketak aurrera doazela eta herritarren arteko elkarlana itxura polita hartzen ari dela adierazi dute Elgoibarko Izarrako kideek.

Bi aste barru, azaroaren 6an, beste bilera bat egitekotan geratu dira. Hori ere 18:00etan izango da, baina Kultur Etxeko Sotoan beharrean Elgoibarko Izarrak Plaza Txikian daukan lokalean egingo dute hurrengo. Astearteko bilerako akta ere zabalduko dute ordurako, bilerara joan nahi duen guztia informatuta joan dadin.

Enpresetako hizkuntza kudeaketari buruzko mintegia egin zuten atzo, IMHn



Enpresen hizkuntza kudeaketarako 30+10 mintegia egin zuten atzo IMHn. Euskara eta hizkuntzen kudeaketa bera enpresentzat erreminta erabilgarria eta eraginkorra direla erakutsi zuten, besteak beste. Enpresa, ikastetxe eta erakundeentzat ballagariak izan daitezkeen zerbitzu, baliabide eta esperientziak trukatu zituzten.

Zortzigarren urtez antolatu du mintegia IMHK, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitza, Eusko Jauriaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Elgoibarko Udalaren laguntzarekin.

Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra, Mendaron

Gabonetako apaingarri iraunkorrek egiteko tailerra antolatu dute Mendaron. Lagun Betikoak jubilatuen egoitzan izango da azaroaren 8an, 17:30etik aurrera.

Haritz dantza taldeak BestaBerri dantza ekitaldian parte hartuko du

Argia dantzari taldeak BestaBerri dantzaldia taularatuko du zapatuan, Zornotzan, eta Elgoibarko Haritz dantza taldeak ere hartuko du ekitaldian. Juan Antonio Urbeltz ezagunak zuzendutako azken lana da BestaBerri. Azaroaren 9an Andoainen egingo dute ikuskizun bera, eta han ere izango dira Elgoibarko dantzariak.

Imanol Garaizabalek irabazi du Antoñanako orientazio raid proba, Aaron Garmendiarekin batera

Jabi Guallar eta Iñigo Araujo bigarren postuan sailkatu ziren

Arabako Mendietan jokatu zuten joan zen zapatuan Luki-extreme orientazio raid proba, eta Imanol Garaizabal elgoibartarrak irabazi zuen, Aaron Garmendiarekin batera. Antoñanan izan zen proba, Izkiko parke naturalean. 50 bikotek hartu zuten parte guztira, Euskal Herrikoak gehienak, baina Errioxako batzuk ere baziren tartean. Trekking, barranko jaitsierak eta mendi-bizikleta probak gainditu behar izan zituzten bikoteek. Orientazioa izaten da garrantzitsua proba hauetan, eta mapan zehaztutako balizak aurkitzea da helburua. Proba amaitzeko zazpi orduko denbora izaten dute bikoteek. Imanolek eta Aaronek 5:21 denboran bildu zituzten baliza guztiak, eta 67 puntu-ekin, proba irabazi zuten. “Gure garaipenaren arrakasta lasterketa bakarrik egin genuela izan zen. Kontzentratuta, gu bakarrik orientatzen, lasai eta oso zehatz egin genuen. Aaronek sekulako erakustaldia



eman zuen orientatzen, eta fisikoki ere oso bizi joan ginenez, alde handiaz helmugaratu ginen”, esan du Imanolek.

Partaideen artean bazen beste bikote elgoibartar bat: Jabi Guallar eta Iñigo Araujo.

Hauek ere baliza guztiak batu zituzten, baina denbora gehiago behar izan zuten proba amaitzeko: 6:50 hain zuten ere. Bigarren egin zuten, eta “oso pozik” zeuden eginiko lanarekin.

Elgoibarko Realzaleak Manchesterren



Europako Txapelketako partida jokatu zuen atzo Realak Manchesterren, eta Euskal Herritik joandako zaleen artean, badira hainbat elgoibartar. Goiko argazkian dituzue horietako batzuk. Manchester eta Realaren arteko norgehiagoka hasi aurretik ateratako argazkian umoreko ageri dira.

Azaroaren 7an hasiko da Morkaikoren udazkeneko mendi emanaldi zikloa

Udazkeneko mendi emanaldi zikloa antolatu du Morkaikok. Aurten, eguazten eta eguenetan izango dira saioak, 21:30ean, Musika Eskolako Auditorioan. Azaroaren 7an izango da lehenengoa. Aranzadi Zientzia Elkarteok *suge eta sugegorriak: fama txarraren biktimak* izeneko hitzaldia eskainiko dute. Ondoren, azaroaren 13an, Arkaitz Astiazaran itziartarrak udaberrian Euskal Herrian barrena bizikletaz egindako ibilaldiaren inguruan jardungo du. 4.400 kilometro egin zituen, 37 etapatan. Andoni Ormazabalen txanda izango da gero. Hilaren 20an, *Lehoi-nabarraren aztarna*, Himalayan galdu zuen anaia Xabi Ormazabalen inguruko ikusentzunezkoa eskainiko du Andonik. Bukatzeko, azaroaren 28an, mendiaren alde ez tenikoaz mintzatuko da David Villegas mendizalea.

Estreinako partida jokatu dute Sanloko senior neskek penintsulatik kanpo

Galdu egin zuten elgoibartarrek Lanzaroten



Lauko senior nesken taldeari esker, penintsulatik kanpora irten da Sanlo. Joan zen asteburuan Lanzaroten jokatu zuten Elgoibarko neskek Puerto del Carmen taldearen kontra. Elgoibartarrak aurten igo dira Zilarrezko Ohorezko Mailara, baina kanariarrak beterranoak dira kategoria honetan, eta esperientziak kasu honetan etxekoan alde egin zuen. 32-20 izan zen azken emaitza, baina partida galdu arren, balorazio positiboa egin du Sanlok: "Hazten jarraitzen dugula erakusteko irteera garrantzitsua izan da guretzat".

Kamiseta berriak

Lauko senior taldeak kamiseta berriak estreinatu ditu. Hemendik aurrera, beraz, ikurriña eta Elgoibarko izena erakusten dituen kamiseta eramango dute Euskal Herrian eta Espainian zehar. Irudia berri eta bateratze lanetan ari da Sanlo, eta poliki-poliki talde guztien kamisetak berritzeko asmoa dauka.

2001 eta 2005. urteetan jaiotakoei futboleko jokatzeko deia egin diete

CD Elgoibarrek 2001 eta 2005. urteetan jaiotako umeak animatu nahi ditu futbolera. 2001ekoek astearte, asteazken eta ostegunetan entrenatzen dute 17:00etatik aurrera, Mintxetan eta Infantil Txiki kategorian hartzen dute parte. 2005ekoak, berriz, igandeetan edukitzen dute futbol eskolako saioa. Interesatuak egun horietan ager daitezke Mintxetan. Informazio gehiagorako 943 741 949 telefonora deitu edo cde@cdelgoibar.com emailera idatzi daiteke.

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa

Azaroaren 10ean jokatu da aurtengo Behobia-Donostia lasterketa, eta hara joateko autobusa antolatu du Mintxeta atletismo taldeak, Patronatuaren laguntzaz. Patronatuko bazkideek hamar euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek 12 euro. Aurten lagun edo senideak ere joateko aukera izango dute. Azaroaren 9rako eman behar da izena mintxeta@mintxeta.com helbidean.

EMAITZAK

FUTBOLA

Arenas 4 – Haundi 1 (Inf.)
Elgoibar 2 – Ordizia 2 (Erreg.)
Elgoibar 2 – Tolosa 3 (Neskak)
Ilintxa 1 – Elgoibar 2 (Jub. A)
Elgoibar 0 – Ordizia 3 (Jub. B)
Bukumendi 1 – Elgoibar 6 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 1 – Eibar 3 (Inf. Txiki)
Elgoibar 1 – Amaiak Bat 2 (Inf. Txiki)

PILOTA

Beloki 22 – Lagunak 9 (1. mailako nag.)
Hernani 22 – Lagunak 12 (3. mailako nag.)
Hernani 22 – Lagunak 2 (2. mailako kad.)

PALA

Lagunak 25 – Altzatarra 17 (2. mailako nag.)
Usurbil 19 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

SASKIBALOA

Viento Sur Elg. 81 – Aloña 76

ESKUBALOA

Puerto Carmen 32 – Lauko Elg. 20 (Sen. nesk.)
Egia 34 – Alkorta Elg. 33 (Sen. mut.)
Beristain Elg. 28 – Corazonistas 12 (Jub. mut.)
Usurbil 22 – Astigarraga Elg. 21 (Jub. nesk.)
Usurbil 13 – Tecnifuelle Elg. 32 (Kad. nesk.)
Pneumax Elg. 49 – Arrasate 6 (Kad. mut.)
Txariduna Elg. 18 – Ereintza 34 (Kad. mut.)
Bera Bera 17 – Murgil Elg. 22 (Kad. nesk.)
Bankoa Elg. 17 – Deca Elg. 31 (Inf. mut.)
Cometel Elg. 30 – Marina 14 (Inf. nesk.)
Aterpe Elg. 22 – Zarazpe 25 (Inf. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Barxakua, 25

17:00 Haundi – Baskonia (3. maila)

10:00 Elgoibar – Lagun Onak (Inf.)

Zapatua, 26

12:00 Elgoibar – Urola (Jub. A)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domika, 27

12:30 Concepto Egile Elg. – Zierbena (2B)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Barxakua, 25

12:00 Alkorta Elg. – Romo (Sen. mut.)

Zapatua, 26

10:00 Ikus Elg. – Aterpe Elg. (Inf. nesk.)

11:30 Murgil Elg. – Leizaran (Kad. nesk.)

17:00 Gabaz Elg. – Usurbil (Sen. mut.)

LANA

ESKAERA

- Emakume arduratsuak haurrak zein nagusiak zainduko lituzke, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ **625 895 460**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanak egiteko. ☎ **697 702 158**
- Gizonezkoa lanerako prest: Adinekoak zaintzeko, sukalde laguntzaile lanerako... ☎ **690 861 846**
- Neska eskaintzen da garbiketak egin edo adinekoak zaintzeko. ☎ **616 457 254**
- Emakumea lanerako prest. Fisioterapia eta terapia okupazional ikasketak ditut. Geriatrian esperientzia. Euskara ikasten ari naiz. ☎ **610 949 526**
- Unibertsitateko ikasleak klase partikularrak ematen ditu. Taldeka edo banaka. DBH eta LHko ikasleentzat. ☎ **657 486 811**
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditu. LH eta DBH1 eta 2 mailetan. ☎ **634 588 605**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Erreferentzia onak. Geriatria ikasketak. Umeak zaintzeko ere prest. ☎ **669 311 385**

- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Erreferentzia onak. Geriatria ikasketak. Umeak zaintzeko ere prest. ☎ **632 253 170**
- Neska arduratsua lanerako prest. Interna edo orduka. Esperientziaduna. ☎ **636 581 194**
- Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Egun erdiz zein orduka. ☎ **680 121 252**
- Emakumea lan bila: etxeko lanak egin edo nagusiak zainduko nituzke. Interna edo orduka. ☎ **648 815 264**
- Emakumea eskaintzen da lanerako: adinekoak zaintzen, garbiketak egiten edo tabernan egingo nuke lan. ☎ **690 199 860**
- Emakumea lan bila. Umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia handia. ☎ **686 052 084**
- Gizonezkoa eskaintzen da lanerako. Nagusiak zaintzen esperientzia. Garbiketak ere egingo lituzke, garaje, bulego nahiz tabernetan. ☎ **692 332 871**
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina, ikasleen trukea eta azterketen prestaketa. EOI. ☎ **670 793 312**

ETXEBIZITZAK

- Etxea alokatzen dut Elgoibarren. ☎ **650 809 190**
- Apartamentu eguzkitsua alokatzen da. Berria, hornitua. Oso egokia pertsona bakarrarentzat edo bikote batentzat. ☎ **629 628 661**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokairuan, Ikastola ondoan. ☎ **943 531 648 / 669 916 148**

BESTELAKOAK

- Taxi lizentzia salgai, gama altuko autoarekin. Bezero poltsa handia. ☎ **630 884 181**

KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK

- Artetxe Behean bizi direnen eta bizi izan direnen afaria azaroaren 16an, Sigma jatetxean. Lehen deialdia, 19:00etan Viento Sur gastrotekan, eta bigarrena, 20:00etan Jai Alai tabernan. Interesatuak 45 euro sartu behar dituzte azaroaren 8rako, Kutxabank-eko kontu korrante honetan: **2095 5036 52 1068686269**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



- Gure etxebizitza komunitatean ur-kontagailu komun bakarra daukagu guztiontzat, eta presidenteak ur-kontagailu indibidualak jartzeko agindu dio enpresa bati, gainerako etxe-jabeekin hitzik egin gabe. Bizilagun batzuk ez gaude ados egin duenarekin. Zer egin dezakegu?

Komunitatearen intereseko gai guztiak etxe-jabeen batzordean aztertu eta adostu behar dira. Bilera bat egin beharko da, eta deitzaileak gai-ordenan jaso beharko du proposamen hori. Hartutako erabakia balekoa izan dadin, etxe-jabe guztien 3/5ek onartu beharko dute, batzarrean egon edo ez. Gehiengo hori lortzen bada, bizilagun guztiak behartuta egongo dira hartutako erabaki hori onartzera. Etxe-jabeen bizkar hartutako erabakiengatik erantzun beharko du presidenteak.

Gomendioa: batzarrera bizilagun guztiak agertzen ez badira eta ez bada legez eskatzen den gehiengo hori lortzen, aktan jaso beharko da, eta akta bilerara agertu ez diren bizilagun guztiei bidali behar-ko zaie. Horiek 30 eguneko epea izango dute aktan jasotakoaren gainean iritziren bat emateko. Ezer esaten ez badute, hartutako erabakiarekin gustura daudela interpretatuko da.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Elia!** Bihar 2 urte! Muxu handi-handi bat, aitaxo eta amatxoren partez. Asko maite zaitugu.



• Zorionak, **Markel** eta **aittita Juan Carlos**, astelehenean zuen eguna izan zelako. Markel, jada 3 urte! Patxo bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **aitita**, zure urtebetetzeagatik, eta ondo hasi oporraldi luzea! Malen txikiaren eta etxekoan partez.



• Zorionak, **Nahia**, asteartean 3 urte bete zenituelako. Mila muxu familiakoan, eta bereziki, zure ahizpa eta lehengusinen partez.




• Zorionak, **Iker**, zure bigarren urtebetetzean. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Duna eta Edith!** Zuek zerate gure postal.



• Bi, bi, bi, zorionak **Mauleri!**



• Zorionak, **bikote**, etxekoan eta familiakoan partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Teofilo** eta **Antonia**, larunbatean 50 urte beteko dituzue-eta ezkondu zinatela. Etxekoan partez, eta bereziki, Asier, Pablo eta Maialenen partez.



Zoriondu ezazu **BARRENEN!**


PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **4€** - Argazki bikoitza **6€** - Hirukoitza **8€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **12€**

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK


Erretratu bakarreko agurra **3€** - Argazki bikoitza **5€** - Hirukoitza **7€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **10€**

Argazkiak **martitzen eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEN**ko bulegora, **12:00ak** baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Urriaren 25ean
ludoteka itxita egongo da.
Aprobetxatu zubia
eta ondo pasa!!

Urriaren 25ean Gaztelekua
itxita egongo da. Urriaren
27an, igandean, 18:00etatik
aurrera, Beldur Barik-en
bigarren saioa!



ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan **3:00etan**, **ordubetez atzeratu** beharko da ordularia.



26 zapatua

Autobusa

16:30 'Libre. Epaiketa politikorik ez.'

Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa irtengo da Txankakoako geltokitik. Iturri edo Jai Alai tabernetan eman daiteke izena.

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Elgoibarko baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan; txosna ere egongo da, eta ganadu feria Aita Agirre plazan. Eguerdian Kale Kantariak irtengo dira.

28 astelehena

Tailerra

17:00 Arte tailerra

Haizea emakume taldeak antolatuta, *Cómo nacieron las civilizaciones* izeneko tailerra landuko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

29 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura tailerra

Haizea emakume taldeak antolatuta, Amor Towles idazlearen *Normas de cortesía* liburua landuko dute. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

30 eguztina

Elkarretaratzea

19:00 'Libre, elkartasunetik konpromisora'

Ainara Ladronek Donostiako epaitegian duen epaiketa salatzeke ekitaldia, Maalako parkean.

Jardunaldia

9:30 Turismo jardunaldiak

Debabarreneko turismo jardunaldiak egingo dituzte Elgoibarren. Musika Eskolan.

Zinea

21:30 'Vértigo'

Alfred Hitchcock-en filma, Iratxo tabernan.

31 eguztina

Aisialdia

19:00 Gaztemapping

Ikerketa datuak partekatzeko lehen tailerra, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

24 Garitaonandia
25 Etxeberria
26 Fernandez
Goizez: Etxebe.

27 Fernandez
28 Yudego
29 Zabaleta

30 Barrenetxea

Gauetz

22:00 - 9:00

Garitaonandia
Etxeberria
Etxeberria

Etxeberria
Yudego

Etxeberria
Barrenetxea

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA

«La mejor oferta»

(Ongarri zinekluba)

24, eguztina: 21:30

25, barixakua: 19:00/22:15

«Guerra mundial»

26, zapatua: 19:00/22:15

27, domeka: 19:00

28, astelehena: 21:30

«Gru 2»

27, domeka: 16:30

La mejor oferta: Zuzendaria: Giuseppe Tornatore. Italia, 2013. 124 min. Drama.

Aktoreak: Geoffrey Rush), Jim Sturgess.

Virgil Oldman gizon bakartia da. Artean aditua da, eta izen handiko gizona enkanteen alorrean. Sentimenduentzako denbora askorik ez dauka, baina egoera hori aldatu egingo da emakume gazte eta misterioitsu bat bere bizitzan agertzen den unean. Artelan batzuk saltzeko laguntza eskatuko dio, eta bizitza aldatuko zaio.

Guerra mundial Zuzendaria: Marc Forster. AEB, 2013. Iraupena: 116 min.

Alkzioa, beldurra. Aktoreak: Brad Pitt, Mireille Enos, Daniella Kertesz.

Bizilagunak bata bestearen kontra hasiko dira borrokan, eta inork ez daki zergatik. Hortzaka eginez birus beldurgarri bat transmititzen da, eta gizakiak munstro bilakatzen dira. Gerry Lane Nazio Batuetako ikertzailearen lana izango da epidemia horren jatorria bilatzea.



Irailean...

JAIOTAKOAK



Noa Ortiz Toledano
Irailak 20
Jose Luis eta Laura



Iraia Arriola Roteta
Irailak 2
Gorka eta Lisbeth



Iker Zubizarreta
Astigarraga Irailak 7
Mikel eta Judith



Ekain Legarreta
Astigarraga Irailak 15
Dogartzi eta Estitxu



Elur Mugertza Araujo
Irailak 3
Ainara eta Iñigo



Danel Martin Hemando
Irailak 8
Raul eta Yolanda

Sare Rubio Arizaga
Irailak 15
Oier eta Nora

Nora Garate Larrañaga
Irailak 15
Jon eta Ane

Enaitz Fernandez
Ceballos Irailak 18
Ivan eta Naiara

Adan eta Axel Leon
Canca Irailak 24
Raul eta Ana

EZKONDUTAKOAK

- **Ander Azpitarte** eta **Yolanda Munin** Irailak 16
- **Ekaitz Gomez** eta **Aitziber Marcoida** Irailak 7

HILDAKOAK

- Mari Karmen Lekue Hormaetxe** • 91 urte • Irailak 1
Jose Elizondo Arozena • 84 urte • Irailak 6
Maria Isabel Gomez Vargas • 38 urte • Irailak 10
Florita Arrillaga Irusta • 93 urte • Irailak 11
Mari Tere Acha Orbea • 84 urte • Irailak 13
Manolo Gil Zengotita • 85 urte • Irailak 18

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak

Erietxe zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antollin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Gremioen GIDA